

## IRUNEN

**S**an Martzial eguna iritsi da irundarrentzat. Jadanik, iaztik armarioan gordeta zituzten alardeko jantziak aterata dituzte, urtean behin ospatzen den egun berezi hau ondo pasatzeko asmotan. Gaurko funtzio militar hau igaro ondoren, emanaldi ugariz betetako azken eguna dator. Bi egun hauen ostean errekuperatzeko, lehenik nekatu egin behar da. Ondo pasa.

## Herri osoa San Martzialera joango da gaur prozesioan

IRUN

**G**aurko egunari ongietorria emateko, txalaparta izango den lehenengo doinua. Goizeko 6ak aldean, Villarrobleoren diana joko du alardeko bandak. Jarraian, danborradaren diana entzuteko aukera izango da. Ordubeteko musika noten jarraian, Komandantearen aginduz, alardeko partaideen elkarketa egingo da Urdanibia plazan.

Talde gutzia, San Juan plazara joaten duena, Jeneralak rebista pasatzen du eta hemeretzi konpainiak bere agindupean gertatzen dira. Plaza honetan egiten da armen lehen deskarga. Desfilean hasi aurretik, konpainiek udal-txetik, hiriko bandera hartuko dute, kale guztiak zeharkatzeko. Hiriko bandera udaletxean jarri eta aginduak eman ondoren, kon-

painiak Juncal plazara doaz.

Udaletxe aurrean egindako ekintza berdina buruko dute, Juncal Amaren eliza aurrean. Ekintza hau, bere laguntzarengatik eskerak emateko egiten da. Goizeko 10ak aldera, eta gudariek irabazi zuten gudarengatik egindako zinaren ondorioz, San Martzial ermitara igoera egingo da. Kutsu erlijiosoa eta aldi berean militarra duen irteera hau prozesioan egiten da.

Jendetza handia igotzen denez, eguerdiko hamabietan, meza nagusia ermitako balkoitik emango da. Funtzioa amaitzen denean, musika bandako lagunek Iparragirrenen 'Nere gitarratxo' abestia joko dute. Hauei tarte bat eginez, trikitixak alaituko du ermita inguru guztia. 1.500 lagun bilduko dituen herri bazkari egingo da eguerdiko 2ak aldera.

Euskal giro jator honetan, ez

da barrerik ez kanturik faltako. Bazkal ostean, batzuk, mahaian eserita jarraituko duten bitartean, beste batzuk nahiago izango dute dantza saio bat egin edo ermita inguruko zelaietan etzanda egon.

Dena dela, ez da ahaztu behar, guzti hau funtzio militar bat dela eta arratsaldeko 5etan agindua ematen denean, hemeretzi konpainiek herrira itzuli behar dutela. Arratsaldeko 6etan alardeak bere arratsaldeko saioari ekingo dio, goizean pasatako kaleetan barrena.

Urtero bezala, aurrean ere jendetza handia espero da Irungo funtzio hau ikusten. Herriko kale nagusi zein enparantzak, jendez gainezka egoten dira, norik zer ikusiko. Jaien antolatzaileen esanetan, urtetik urtera tradizio hau gero eta indar handiagoa hartzen ari da eta aurrean ere ez dute gutxiagorik espero.

## Azken eguna ez da bihar arte izango

J.A. / IRUN

Jai bereziak dituzte Irunen. Irundarrek alardeari ematen diote duten guztia San Martzial egunean eta bezperan. Horregatik atzo izandako ekitaldiak eta gaurko iragarriak daudenak alardearen bueltan dabilza ia denak. Ez ordea biharkoak. Sanmartzial bigarrena izango da eta 1991ko Irungo jaien azken eguna, baina hala ere jai ekitaldiez ederki bete dute uztaileen lehendabizikoa.

Bertsolariak, kirola, kontzertuak... bada zer aukeratua alajainkoa. Eguna Urantzuko dultzaineroek goizeko bederatzietan joko duten dianak esnatuko du. Eguna erraz esnatuko duten esperantza badute baina irundarrak

esnatzea ezda edozein moduzko lana izango.

Goizeko lehen orduko ekitaldiarako Urdanibia plaza aukeratu dute antolatzaileek. Hamarretan Irungo Euskal Kirolak elkarteak antolatuta ganadu lehiaketa hasiko da. Leku berean, baina ordu t'erdia beranduago —11.30etan— muga ondoko hirian sona handikoa den toka txapelketa jokatu da. Tokako San Martzial sariketaren hemezortzigarren edizioa izango da.

Bertsolariek lehen saioa goizeko hamaiketan dute egitekoa eta hurrengo bazkal aurretik, 13.45etan. Goizean izango dira gainera, herri kirol saioa —eguerdian Urdanibia plazan— eta kamareroen lasterketa. Al-

dapa elkarteak antolatzen duen lasterketa honek bigarren edizioa du aurtengoa eta Santiago kalean dagoen Triangulo plazan egingo da. 13.30etan ganadu lehiaketaren sariak emango dituzte.

Arratsaldeko saietan bi ikuskizunen artean aukeratu beharko da. Urantzuko frontoian profesionalen arteko pilota partiduak eta Urdanibia plazan dantza sultoko lehiaketa. Beste makina bat jai ekitaldi ospatuko da iluntze eta gauean baina musika emanaldiak dira nagusi. 20.00etan San Juan plazan SER irrati kateak antolatuta, Terapia Nacional, Insignificantes, El Frente eta Arkaitz taldeak plazaratuko dira. 23.00etan Oskorri taldearen kontzertua Juncal plazan.



**SAN MARTZIAL** mendira ekainaren 30ean igotzea betebeharrak bat da irundar askorentzat. Ibilaldi hau egin ondoren, batez ere juerga bizian ibili denak, gustora hartzen du ermita ondoko zelaietan dagoen lasaitasuna. Bazkal ondoren, batzuk mahaian iharduten diren bitartean, beste batzuk, lasterka joaten dira belar gainera lo saio bat egitera.

### Ibiltarien egitaraua

- |   |   |
|---|---|
| 05.00etan txalaparta.                           | mitan.  |
| 06.00etan alardeko bandaren diana.              | 14.00etan bazkari herrikoia.                  |
| 07.00etan alardeko kideen elkarketa Urdanibian. | 17.00etan alardearen itzulera.                |
| 08.25etan alardea San Juan plazan.              | 18.00etan alardearen hasiera Santa Elenan.    |
| 10.00etan prozesioa San Martzialera.            | 23.00etan su festak.                          |
| 12.00etan meza San Martzial ermitan.            | 23.00etan fanfarreen irteera.                 |
|   | 02.00etan fanfarreen buelta herriko kaleetan. |

**COVAIN**  
BAKEROEN ETXEA  
FORUEN KALEA, 1 TEL.: 631313 IRUN

**MIGUEL TABERNA**  
PINTXOAK eta AFARIAK  
Urdanibia plaza, Tel.: 62 13 73  
IRUN

### ALMACENES ETXANIZ, S. A.



IRUNEN ZURE BAINURAKO  
BEHAR DITUZUN OSAGARRI  
GUZTIAK

- Griferiak
- Manparak
- Altzariak
- Gres eta Keramikak

JUAN ARANA, 3 TEL.: 943/611767 IRUN

**PASAKA**  
OSTATU  
San Martzial kalea, 1  
IRUN

**KIRRI**  
NAFARROA IBILBIDEA, 2  
IRUN



• burdindegia  
• industrial ornigaiak  
**jaiak ondo igaro!!**

Colon ibilbidea, 32  
IRUN

Delezarren Markesa 1  
HONDARRIBIA